

SANPEDROTARRA FUTBOL TALDEAREN HARMAILETAKO EUSKARAREN ERABILERA

Oinatz Alonso, Erlantz Amiano, Elorri Lonbide eta Jon Kortadi

Soziolinguistika klusterra eta Pasaia Lezo Lizeoa ikastola



SARRERA

Euskara hizkuntza minorizatu bat da, Euskal Herrian hitz egiten dena. Euskal herria ofizialki ez da herrialde bat, baina Espainia eta Frantziaren mugan hedatzen den toki da. Bi zatitan banatzen da, Ipar eta Hego Euskal Herria. Lehena Zuberora, Lapurdi eta Behe-Nafarroak osatzen dute, Frantziako lurretan eta bigarrena, Hegoaldekoa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroak Espainiako lurretan. Hizkuntza hedapena ere ez da berdina, ofizialtasunarekin batera, Hegoaldeko zati gehienean ofiziala da, Nafarroako zati handi batean izan ezik, eremu ez euskaldunean. Iparralde osoan ere ez da ofizialtasunik, eta udalteekek trabak jartzen dituzte euskararen sustapenean. Horren ondorioz, Nafarroako zati handi batean euskararen ezagutza eta erabilera oso baxua da. Euskara gehien erabiltzen den probintzia Gipuzkoa da, eta gure ikerketa bertan egingo dugu, zehazki Pasaian.

Euskarak 750 000 hiztun inguru ditu, bere hedadura osoan. Ez du hizkuntza familia ezagunik, eta Europako zaharrena dela esan ohi da. Beraz euskara Euskal Herrian hitz egiten den hizkuntza minorizatu bat da. Euskarak minorizatu egoeran amaitzeko, hainbat eraso jaso ditu, Espainia zein Frantziako gobernuetatik. Horietatik ezagunena, Frankismoaren garaia izan zen, Espainia Francoren diktadurapean zegoen bitartean debekatua egon zen haren erabilera.

Gaur egun, biziberritze prozesu bat jasan izan du, hizkuntzaren galera eta honen erabilera sustatzea zutenak helburu. Horren adibide; korrika, euskaraldia bezalako ekitaldi handiak eta beste motatako ekintzak

Egitelak: Sanpedrotarra futbol taldearen harmailetakoko euskara erabilera neurtu eta aztertu da. Horretarako hiru partidu hartu dira ikergai moduan: bi datu bilketak egiteko eta azken honetan, kontrol taldea eta esku-hartzea.

Hipotesiak:

1- San Pedrotarra futbol taldearen, kadeteen partidu bateko harmailetan euskararen erabilera %30-ekoa izango da.

2- Euskara bultzatzeko ekintzak egin ostean, euskararen erabilera %40ra igoko da

MATERIAL ETA METODOA

Ikerketa area:

Sanpedrotarren partidu bat ikerketa denez, San Pedroko datuak honakoak dira: San Pedro Pasaia udalerri bat da Gipuzkoan kokatua eta bertako biztanleria 3200 pertsonakoa da, eta adin piramidea aztertuz, haurren jaiotzak txikitzen ari dira, eta hizkuntzaren erabilera gutxitzen du, haurrak baitira euskara erabilera datu handienak dituztenak. 2021 eko kale neurketetan, euskararen erabilera %17,95 koa zela neurtu zuten San Pedron. Horrez gain, haur eta nagusiak nahastuta erabilera %43,6 ra igotzen zen.

Esperimentu diseinua:

Harmailetakoko euskara erabilera neurtu da 3 saiotan. Lehen biak otsailaren 7an: kadeteen partidu eta Regionalen partidu. Hirugarren sesioa martxoaren lehen kadeteen partidu batean. Bertan egingo da kontrol taldea eta interbentzioa. Kontrol talde bat egitea guztiz beharrezkoa da horrelako ikerketetan. Kontrolak ziurtatzen digu datuetan eragina izan duena egindako interbentzioa den ala beste faktore batek baldintzatu dituen datuak.

Interbentzioa:



Interbentzioa Martxoak 1 10:00 hasten den partiduan egin dugu. Horretarako, partidu bi zatitan banatu da: lehen zatia kontrol taldea izan da eta bigarrena tratamendu taldea. Horretarako, interbentzioa deskantsuan egin dugu. Gure interbentzioa, euskara bultzatzeko mezu subliminalen bitartez egin da; euskara eta futbol taldea lotzen dituen kartelak, euskarazko musika bozgorailuetan eta harmaila dekoratzeko ikurrinak.

Ekoizpen datuen bilketa:

Datuak Soziolinguistika klusterreko aplikazioaren bitartez bildu dira. Gutxi gorabera partidu bakoitzeko 15-20 elkarrizketa neurtu ziren, harmailetatik alde batetik bestera igaroz, baina elkarrizketa berdina bi aldiz neurtu gabe.

Datuen analisia:

Jasotako datuak bi grafiko ezberdinetan banatu ditugu, eta grafiko bakoitza hiru zutabetan, Helduak 18 urtetik gorakoak, gazteak 18 urtetik beherakoak eta guztira zutabeak. Lehen grafikoan, otsailak 7 ko datuak ageri dira, hau da, datuak biltzeko izan ditugun bi partiduetako harmailetakoko datuen batezbestekoekin osatutako grafikoak. Bigarrengoan aldiz, martxoaren 1 eko datuak ageri dira, egindako kontrol taldearen eta interbentzioaren batua batuta sortutako grafikoak. Akats bat izan genuen datuak biltzerako orduan, eta kontroleko zein interbentzioko datuak multzo berean nahastu zitzaizkigun.




EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lehen hipotesia bete da, jasotako datuak % 34,3 koak izan ziren lehen bi egunetan, lehen grafikoan ikus daitekeen bezala. Gure hipotesian %30 eko euskararen erabilera aurreikusten genuen eta ia %5 handiagoa da lortutako emaitza, zehazki %34,3.

Bigarren hipotesia bete den ezin dugu zehazki argitu, datuekin izandako arazoaren ondorioz. Baina lortutakoa ikusita, euskararen erabilera %51,8 neurtzea, esan dezakegu gure esku-hartzeak eragina izan zezakeela. Egindako kontrol taldeko eta interbentzio ondorengo datuak bateratu egin zaizkigunez, ez dugu kontrol taldeko datuak bereizirik eta horregatik ezin da ziurtasun guztiz esan gure egindakoak eragina izan duela, eta ez kanpoko beste faktoreen bategatik.


OTSAILAK 7KO DATUAK

Lagina: 67 pertsona, 2 partiduetan banatuta.



MARTXOAK 1 EKO DATUAK

Lagina: 160 pertsona, partidu bi zatitan banatuta



ONDORIOAK

Proiektu honekin Sanpedrotarra futbol taldearen harmailetakoko euskara erabilera neurtu eta bultzatu nahi izan da, kirol arloan ere euskara bultzatzeko. Emaitzetan esan bezala, euskararen erabilera aurreikusitakoa baino handiagoa izan da, batez ere helduetan. Ziurtasun osoz esan ezin dugun arren, esku-hartze eguneko datuak handiagoak direnez, egindako esku-hartzea baliagarria izan dela pentsa dezakegu, batez ere gazteengan.



BIBLIOGRAFIA

Euskal gobernu (2024) Hizkuntzaren Estatus Juridikoa, euskadi.eus: https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/informacion/flash_proba/es_11035/html/01_x.html

Pasaia udala (2025), biztanleria errolda datuak, pasaia.eus: <https://www.pasaia.eus/eu/demografia>

Soziolinguistika klusterra (2021), hizkuntzen erabileraren kale neurketa pasaia; soziolinguistika.eus: <https://infogram.com/pasaia-aurkezpena-1h7z2l8a195d6g6o>

Asia University (2012), "The Effects of Music on Language Acquisition", google scholar